

Noaia!!

www.noaia.com



Maila handiko lanak
Literatura Lehiaketan



Nesken eskubaloi taldeak,
Euskal Herriko onenen artean

U surb ilek independentzia

EAE  ANV

www.eae-anv.org

erikertimeli
qazaluk o

independentzia!

gazteen
etorkizuna
independentzia!

tasavvut
independentzia!

gure
ametsa
egi bihur dadin
independentzia!



Albisteak iruditan !!

Bertso giro aparta

Joan den larunbatean Nafartarrak kultur taldeak antolaturiko bertso afarian egundoko giroa egon zen Agerialdeko jantokian. Fredi Paia eta Xabier Sukiak bi orduko saioa eskaini zuten 25 afaltiarren aurrean. Lehendabizi, gai librean aritu ziren eta Nafarroako historiaren ezagupidea zabaldu zuten, bertso joskeraz orrazturik. Bildutakoak janzteko baliagarri izan zen. Ondoren, gai batzuk jarrita: ofizioa, bakarka eta puntuari erantzunez, beste saio bikaina bezain umoretsua egin zuten entzulegoa asetzeko moduan. Bildutako guztiak oso pozik irten ziren eta datorren urterako ere gogotsu hurbiltzeko itxaropenarekin.



BI ORDUZ ARITU ZIREN BERTSOTAN FREDI PAIA ETA XABIER SUKIA.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustín Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Aina Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregerai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

ORDUBETEKO LANUZTEA _____ **5. OR.**

KRONISTAK KALEJIRAN _____ **6. OR.**

PARTE HARTZE HANDIKO MENDI ASTEA _____ **8. OR.**

SANTO TOMASEKO AZOKA _____ **9. OR.**

YOKO GARBI, MUSEAN NAGUSI _____ **12. OR.**

ESKUBALOI TALDEAK, ONENEN ARTEAN _____ **14. OR.**

GOARDIAKO FARMAZIAK, GARRAIOAK... _____ **16. OR.**



Euskal presoak

Euskal Herra!



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



LUIS ARANALDE

Gabonak: fartsa huts?

Lehengo astelehenean Teledonostin izan nintzen. Bada hor “Barra Libre” programaketa bat eta aste honetan, “gabonak bai-gabonak ez” zen debatea. Gonbidapenari baiezkua eman nion eta gustura.

Lau mahaikide ginen: Gabonen kontra zeudenak, Cristina de la Fuente, arte galeria bateko arduraduna eta Iñaki Berrio, Diario Vasco-ko artikulua idazlea; alde geundenok Elise estilista eta ni. Moderatzaile bezala Antxon Blanco kazetaria.

Iñaki Berriok zioenez, festa horien aurkako objetorea da, jai horiekiko guztiz alergikoa, desager daitezen saiatuko dena; ez du onartzen gizarte laiko batean horrelako eragina nola izan dezakeen festa erlijioso batek. Kontrako militantetzat hartzen du bere burua.

Cristina de la Fuenteren pentsaera antzekoa da, baina, moderatuagoa. Honek gaitzesten duena da egun hauetako kontsumo gose-egarria, tripazainkeriak, arinkeria...

Elise, aldiz, guztiz alde zegoen. Sei haurren ama, amona gaztea, bitalista, hizketan sutsua... Berarentzat urteko festa politenak, familiatzat gozatzeko une aproposenak eta bere fedea sakontzeko egokiak.

Moderatzaileak niri galdetu zidanean ea zer pentsatzen nuen gabonei buruz, hauxe esan nion: Eguberria da, bere jatorrizko zentzuan, biziari kantatu zaion odarik ederrena eta iraultzaileena. Besterik da guk zer egin dugun abesti paregabe horrekin.

Nik onartzen ditut aldi honi egin zizkieten kritika guztiak, nola ez bada... Baina, hala eta guztiz ere, gure bihotzean pilpiratzen duen infinituaren desira guztien oroimen eta adierazgarri dira gabonak.

Gabon gaua nola ospatzen nuen kontatu nien jarraian. Afari goxoa egin ondoren Ibarrako nire iloba baten etxean, pianoan jarzen naiz eta pieza pare bat jo ondoren, nire koinatu zaharrak (85 urte) aureskua dantzatzaren duela bi urte arte. “Aurten ere atera

behar diat”, esan zidan duela egun gutxi. Gero, “Mesias sarritan” kantatu eta bakarkako “Belengo portalian” berriro nire koinatuak. Ikuskizun hori amaitu zain egoten dira sei ilobatxo trikitixa eta panderoaz lagunduz guri gabon kanta sorta eskaintzeko. Deskriba ezina da une horietan sumatzen dudana poza eta emozioa. Mus saio luzearekin (“a cara de perro”) amaitzen dugu gabon topaketa umeak jolasean eta kantari dabiltzan bitartean. Guztizko zoriontasuna kasik!

Parrokian ea zer egiten nuen, ea ze ikuspegi ematen nion festa polemiko hauei galdetu zidanean moderatzaileak, bi gauzak mintzatu nintzen:

1-Kritika apala nola egiten nion egun hauetako estilo fribolo, kontsumista, hutsal eta arinari. Apala diot, izan ere, zein ez dago gutxi gehiago murgilduta estilo honetan?

2-Jatorrizko edukia adierazten saiatzen naiz: hau da, Belengo Haurraren mezuak ez duela zerikusirik Elizak eta guk eman dugunarekin askotan. Baztertuekin (artzainak) bat egiten duen Jainkoa, sinesgabeek (ekialdeko magoak) nola aurkitzen duten Jainkoa haur xume, apal eta baztertuearen, erlijioaren arduradunen (apaiz, letratu...) ezgaitasuna jende xumeak ulertu zuenaz jabetzeko. Erlijio manipulatzaile guztien salaketa gogorra izango du Belengo Haurra heldua bihurtzen denean: sasi-jainko zapaltzailearen kontra borrokatuko du Jainko “aita” aldarrikatuz; tenpluetako negozioa desegingo du Jainkoa “espirituz eta egia” adoratu behar dela esanez; legeak eta instituzioak pertsonen zerbitzurako daudela eta ez alderantziz hots egingo du. Nork aldarrikatu du mezu iraultzaileagorik?

Nire uste apalean, mezu horretan dago gure bizitzaren misterioa nolabait ulertzeko giltza. Eguberri on eta 2008 urte zoriontsua opa dizkizuet!

Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregerai - Joxe Piñas - Unai Agirre

Ika-mika !

Makrokartzelarako lur erreserba

Udaltxe batek lur eremu jakin bat bereganatzeko (bere udalerraren barnean) bi bide izan ditzake, bata aurretiaz lur jabeekin adostasunera iristea da eta bestea, tamalez sarritan erabiltzen dutena, inposaketa. Zubietako lur eremuak erreserbatzarekin kasu. Honela sailka ditzakegu Donostiako udalak eman dituen pausuak.

Maiatzean 100 hektarea erreserbatu zituen Zubietako Eskuzaitzeta eremuan Makrokartzela eta ekonomia jarduerarako industria gunea eraikitzeko. 100 hektarea hauetatik 90 Eusko Jaurlaritzaren lurra dira (esan Eusko Jaurlaritza 2005ean makrokartzelaren aurka agertu zela). Baina badira 42 lur zati jabego pribatukoak direnak eta jabe – kaltetu hauetako batzuei beraien lurra erreserbatuak (honek dakarrenarekin) gelditzen zirela jakinarazi bazi-tzairen ere gehienek ez dute inolako infor-mazioz jaso.

Ekainaren erdialdean Zubietako Herri Batzarra Odon Elorza Donostiako alkatearekin bildu zen eta Odon Elorzak onartu egin zuen bi makro proiektu hauek (makrokartzela eta industria gunea) gehi erraustegia Zubietara ekartzeko (bidaltzeko) asmoa zuela. Baina Zubietako Herri batzarrek Loiolako kuarter militarra ere Zubietan jartzeko asmoa zuen galdetu zio-nean honek goitik behera ukatu zuen hau.

Hau horrela eta helegiteak helegite azaroaren 9ko GAOan hor non argitaratzen duten Zubietan erreserbatutako 100 hektareatik 30 makrokartzela eta kuarter militarra eraikitzeko erreserba zehatza egiten dutela.

Abenduaren 27an egingo den Donostiako udal plenoan Zubietako lurren erreserbari buruzko bozketa egingo da. Aipatu batetik, EB-Aralar koalizioa makrokartzelaren aurkako plataforman dagoela

eta bestetik EAk makrokartzelaren aurkako iritzia publikoki azaldu duela. Hau diogu hitzak sarritan haizeak eramaten dituelako, izan ere abenduaren 13an Donostiako hiri-gintza batzordean alderdi politikoek Zubietako lur erreserbatzeari buruzko txostenaren plenora eramateko bozketa egin zuten eta hona hemen emaitzak.

PSE-EE, EB-Aralar eta EAJ-PNV lurra erreserbatzearen alde agertu ziren; EA eta PP abstenitu egin ziren.

Beraz, Usurbilgo, Aginagako eta Zubietako herritarroei abenduaren 27an Donostian egingo den plenora joatea dago-kigu, hitzen ginetik alderdi politiko bakoitzaren jarrera zein den ikusi eta inposaketa salatzeri. Herriak beti duelako zer esana inposaketaren aurrean, entzun gaitzela behintzat!

Zubietako Herri Batzarra

18/98ko auzipetuen aldeko lanuztea, arrakastatsua

18/98ko auzipetuek deitu zuten 1 ordubeteko lanuztea ez zen ohar-kabeen pasa. Abenduaren 13an egin zen lanuztearekin bat egin zuen Udalak. Lantegi, taberna eta denda gehienetan ere, ordubeteko lanuztea egin zen. Ikastolan, irakasle asko eta ikasle gehienak.

Lanuztea egin zutenak, udaletxe aurrean bildu ziren eguerdiko 12:00etan. Lantegietatik irten ziren langileak LABen pankartarekin bertaratu ziren. Ordu erdi udaletxe aurrean egon ondoren, manifestazioan ibili ziren kalez kale. 300dik gora izan ziren manifestazioan bildu zirenak. Arratsaldeko 20:00etan beste manifestazio bat egin zen.



JENDE ASKO BILDU ZEN LANUZTE GARAIAIN EGIN ZEN MANIFESTAZIOAN.

Ika-mika!

Arratsaldeko lau t'erdia jo dute. Ikastetxearen atearen jiran hamaika neska-mutil koxkor dago. Bata bestearen gainean pilotzen hasi dira. Ikastolatik irteteko segundu batzuk besterik falta ez direnean, ate gardenetik zehar begira jartzen dira haurtxoak, bere aita edo amaren arrastoaren bila. 5-6 metrotara gurasoak gaude. Gure haurtxoa non egongo ote den begira. Ikusitakoan, eskua altxa eta agur bat bidaltzen diogu "hemen nago! etorri naiz!" adierazi nahian. Heldu da ordua. Irakasleak atea ireki eta San Ferminetako zezenak moduan irteten dira haurrak bere ama edo aitaren bila. Haurra badator, zuzen, eskuan zerbait dakar, marrazki bat. Eta ama edo aita sutuki besarkatu ondoren, ikastolan egin duen azken marrazkia erakusten dio. Aita eta amaren etxea marraztu omen dute oraingoan, "Ze polita maitia" esaten diogu egindako lana saritu

Eutsi Olatz!

nahian. Haurra pozik da. Bokadiloa hartu eta bere lagunekin batera doa arrapaladan parkera.

Halaxe egiten zuen Olatzek ere orain gutxira arte. Malen ikastolako ate gardenetik begira. Olatz 5-6 metrotara eskuak mugitzen "hemen naiz! Etorri naiz" adierazten. San Ferminetako zezen pare irteten zen Malen Olatzen bila ikastolan egindako azken lana eskuan zuelarik. Olatzek "ze polita maitia" esaten zion eta bokadiloa hartu ondoren, gure beste seme-alabekin batera joaten zen Malen, pozik, parkean jolastera.

Baina gaur, leihotik begiratu arren, ez du ama ikusi. Ama urrun joan dela esan diote Maleni. Eta denbora batez ez omen du leihotik bere ama ikusiko, ez eta marrazkirik erakutsi ahal izango ere. Malen triste dago. Malenek badaki zergatik dagoen triste. Amaren beharra du. Baina ez daki zergatik ez dagoen ama berarekin. Ez du hori ulertzeko adinik.

Guk ere ez dugu gaur Olatz ikusi. Eta gu ere triste gaude. Baina guk badakigu zergatik ez dagoen Olatz gurekin. Baina guk ere, Malenen gisara, ez dugu ulertzen nahiz eta adinez dezente zaharragoak izan. Badakigu larunbatean atxilotua eraman zutela Madrilera. Olatz ama da, Malenen ama, eta gure laguna eta guraso elkarteko kidea, eta parkeko tertulietako parte, eta baita beste hamaika gauza ere.

Jaso ezazu Zubietako ikastetxekeo Guraso, irakasle eta haur guztien partez hemendik ilargirainoko muxu erraldoi bat.. Eta zu lasai, "Hemen naiz, Etorri naiz" esan arte, zure ondoan, Malenen ondoan, Xabierren ondoan... egongo gara eta. Animuak Euskal Herriko txoko honetatik.

Zubietako Eskola Txikiko
guraso eta irakasleok

KALEBERRI

IRATI PORTU

Santo Tomas Usurbilen



Pasa den igandean Santo Tomas eguna ospatu genuen Usurbilen. Santu honen eguna, berez, abenduaren 21a dela jakina den arren, herrian aurreko igandean izan genuen.

Goizeko hotzak (-1°C alajaina!) ez zuen herritarren jakinmina izoztu, eta ugari izan ziren frontoira azaldu zirenak. Han herriko baserri desberdinetako babarrunak eta sagardoa izan genituen lehian, eta ez zegoen aditua izan beharrik bat probatu eta beste hura dastatzeko.



Nahikoa aitzakia ere bazen goizeko frexkuran talo goxogoxoa jan eta sagardo pixka batekin eztarrian behera bultzatzeko. Bertan bildutako 34tatik babarrunetan txapel-dun Usasku baserrikoak izan genituen, eta sagardorik onenaren saria, berriz, Anburu baserriak eraman zuen.

Ondorenean, eguerdian, herri kirolak ere izan ziren: harrijasotzaileak eta aizkolariak, hain zuzen.

Beraz, igandea egun borobila izan genuela esan dezakegu. Eta gogoarekin geratu zenak badaki, herrian izango ez bada ere, ostiral honetan Santo Tomas!



TXOKOALDE

KOLDO HUEGUN

Bi lerroren artean



A bailan doa urtea, abailan bizitza, abailan gizartea. Azkar eta atzera bueltik gabe, autobide batean berebilak bezala, bi lerroen artean errenditu ezker eta ezarritako zenbakien morroitzak onartu ezker dena ondo, denok aurrera.

Denak du neurria, denak prezioa, denak du zifra madarikaturen bat buru gainean, bai euskerak, bai euskaldunok, bai Euskal Herriak, bai Olatzek. 18/98 autobidea hartu nahi ez dutenen, amets gaiztoa, bi lerroen artean aratago bizitza badela sinestea beste errurik ez dugunon amets gaiztoa.

Bai auzotar, trenbide ondoan, Errementaldegia eta Portu arteko bueltan txikitan, beste auzoko umeekin batera korrika ikusi izan duzun horren gain bakarrik ez baitago amets gaiztoa, baita berarekin korrika egiten zuten gaintontzeko haurren gain ere. Baita ume haien umeen gain ere, bere aitonen gain, azken finean kolore gorri-horiak markatutako bi lerroak onartzen ez duen edonorengan.

Eta guk ze...? Zaindu Xabier eta Malen! Izango al dugu behar den adina adorerik? Zuk erakutsi duzuna bezalakorik. Bejondeizula! Eta eutsi!

ATXEGALDE

MAJESUS URBIETA

Begirada bat leihotik

Leihotik begirada bat eman diot gure Lauzoari eta aldaketa haundiak ikusi ditut. Oso ezberdina iruditu zait auzoa. Urte hasieratik bukaerara aldaketa ederra izan du auzoak. Lehen, leiho beretik begiratzean Santueneko aurrean zelai berdea ikusten nuen. Ondoren Kanpantorrea eta Andatza. Espazio ireki eta lasai bat somatzen zen leihotik. Orain ordea bestelakoa da ikusten dudana. Etxe berriz bete dute eta bista eder haiek gordeta eta tapatuta geratu dira. Baina tira, onuragariak ere izango al dira etxebizitza berriak.

Gaia aldatuz, Santa Luzia eguna izan genuen hilaren 13an eta urtero bezala jostun eta zaletuek ospatu genuen. Egun berezia izaten dugu eta jatetxeetan ere nabari izaten da hori. Eguraldi onak lagunduta eta ohiturak galdu gabe Zumarragaraino joandako usurbildarrik ere izan zen.

Pasa den igandean berriz, Santo Tomas eguna ospatu genuen herrian. Bertan giro ederra izan genuen taloa eta txistorra jateko eta sagardo trago batekin bultzatzeko. Honekin, urtea bukatzen ari dela konturatzen gara eta azken txanpa geratzen zaigu. Ondo pasa ditzazuela Gabon jaiak eta urtearen bukaera eta urte berri on denei!



AGINAGA

ANE MANZISIDOR

Urtea amaitzear



Negua iritsi dela gauza jakina da. Temperaturak asko jaitsi dira, goize-tan belardi eta auto guztiak txuri-txuri... elurra egitea soilik falta da.

Gabon gaua eta Eguberri eguna ere gaine-an ditugu. Hau dela eta, hurrengo astelehe-nean, abenduak 24, Aginagan zenbait gazte, haur eta guraso Gabon eskean irtengo dira. Garai bateko ohitura zaharrei eutsiz, herriko etxe eta baserri guztietatik igaroko dira, etxe guztiak kantu eta trikitu doinuz alaitzeko. Horrelako hotzari aurre egiteko dantza pixka bat egitea ere ez zaie gaizki etorriko.

Bestalde, Antxomolantxa ludotekan ere izango dira Gabonetako ekitaldiak haur, gazte eta gurasoentzat ere. Abenduaren 26 eta 29an arratsaldeko 17:00etan bi film ikusteko aukera, "Babe Txerritxoa hirian" eta "Axterix eta Kleopatra". Abenduaren 27an eta urtarrilaren 3an arratsaldeko 15:00etan, jan edanak jeisteko bi txango, bata erria ezagutzeko eta bestea gure auzoa ezagutzeko. Abenduaren 28an arratsaldeko 17:00etan Pello Añorgaren ipuin kontaketa eta bukatzeko, urtarrilaren 4an arratsaldeko



Poli eta Moli

17:00etan Poli eta Moli pailazoak.

Eta eguberrien ostean, konturatzerako, 2007. urte honi agur esan eta 2008ari kaixo esateko garai iritxiko zaigu. Aginaga alde honetatik, ondo-ondo buka dezazuela urtea, eta hobeto hasi 2008a. Besteri gabe, hurrena arte!

KALEZAR

MADDI GALBETE

Kantuan aritzeko egunak



Olentzero, Mari Domingi eta konpainia izango ditugu gure artean datozen egunetan. Auzotarrak ez bagara ateratzen ere izango dugu aukera ostiralean hasita kantuan aritzeko. Haur Eskolako txikiak ostiralean arituko dira Haur Eskolan. Auzoko txikiak ere hitz egiten hasi aurretik hasten dira kantuan. Horretarako Haur Eskolako begiraleen laguntza izango dute eta benetan polita da haurrak txikitatik gure betiko kantuak ikasten ikustea.

Astelehenean berriz, Etxeratek egiten duen kalejira izango dugu. Hauek ere kaxkotik ateratzen badira ere auzoz auzo ibiltzen dira eta Kalexarren ere izango dute kantuan aritzeko parada. Ziortzan eta dotrinan ibiltzen direnak ere egiten dute bere ibilbidea. Hauek jaiotza eta guzti izaten dira gainera.

Ikusten duzuen moduan aukerak badira urtean behin kantatzen ditugun abestiak gogoratzeko eta kantatzeko. Ea ba aurtengoan ensaio moduan hartzen dugun eta datorren urtean auzotarrak egiten dugun geure kalejira. Zergaitik ez.

ZUBIETA

GARAZI ITURRALDE

Bizilagun gehiago beharbada

Azer nolako herria daukagun! Ibaia du, againera nahiko zabala, zuhaitzak ditu, urrituz doazenak eta orain soineko txuria jantzi behar dutenak, udaberrian nahiz neguan txoriak ditugu, bizilagun ugari daude kalean jolasean nahiz dantzan eta gainera mendi asko ditugu inguruan. Hauek txoriak dituzte, zuhaitz luzeak, basurdeak, txingurriak eta orain gainera laster kartzela, errausgailua eta antena handi bat. Antena bizilagun dugu guri ezer galdetu gabe gure herrian sartu dena, baina oraindik kartzela eta errausgailua falta dira. Errausgailuaren etorrera entzuna dugu eta baita kartzelarena ere.

Bilera ugari daude eta egon dira, eta laster Donostiako udalak plenoa du abenduaren 27an. Pleno honetan beharbada bizilagun gehiago ezagutuko ditugu, baina beraiek ez dute ezer esango, antena bezala, isilean koka daitezke gure herrian. Horretarako pleno horretara joan beharko genuke, alde batetik, bizilagun horiek ezagutzeko, eta bestetik, ezagutu ondoren gure herrira sartu daitezkeen edo ez erabakitzeko. Beraz, hilaren 27ko egunean denak plenora bizilagun berriak ezagutzera!



Ederra aurtengo Mendi Astea

Aurtengo Mendi Astean Usurbilgo eta inguruko mendizale eta bidaia-riei beraien ibilien berri bestei emateko aukera eman zaie. Honen harira antolatu zuen Andatza elkarteak “Bidaia eta mendi irteeren argazki eta bideo lehiaketa”. Lehiaketa honetara zazpi lan aurkeztu ziren eta hiru egunetan zehar, lan guztiak ikusteko aukera izan zen Sutegiko auditorioan. Bataz beste, “emanaldi bakoitzera 40-45 pertsona inguru bertaratu da eta alde honetatik nahikoa gustura gaude”, adierazi digute Andatza mendi elkarteok.

Argazki eta bideo lehiaketan, Xabier Azkue eta Naxari Altuna nagusitu dira. Baina epaimahaiak erabakitako hiru sarietaz gain, ikusleek ere gustuko lana saritzeko aukera izan dute. Sari hau Felix Aizpuruaren “Abaguneak” lanarentzat izan da.

Arantzan babarrun-jana

Mendi Astearen baitan antolatu diren irteerak ere arrakastatsuak izan dira. Larunbatean, Oiartzun-Arantza



AHALIK ETA EGITARAU ZABALENA PRESTATZEN AHALEGINDU DIRA ANTOLATZAILEAK.

mendi martxan 29 laguneko mendizale taldea abiatu zen. Giro hotza eta lainotua bazen ere, goiz ederra pasa zuten. Lau lagun bidea aurkitu ezinik ibili ziren baina, azkenean, denak batera Arantzako (Nafarroa) aterpean babarrun-jan goxo batekin amaiera ederra eman zioten irteerari.

Antolatzaileak, gustura

Andatza Mendi Elkartekoak pozik daude Mendi Asteak eman duenare-

kin: “ahalik eta egitarau zabalena antolatzen saiatu gara eta bertaratu direnek gozatuko zutelakoan gaude”.

Mendi aseguruia

Mendiko aseguruari dagokionez, oraindik egin ez duenak Andatza Mendi Elkartearen lokalean eskura dezake, asteartero, iluntzeko 20:00etatik aurrera.

IMANOL UBEDA

Xabier Azkue eta Naxari Altuna, bideo eta argazki lehiaketako irabazleak

Aurtengo Mendi Astean, lehen aldiz, bidaia eta mendi irteeren inguruko argazki eta bideo lehiaketa egin da. Sutegin hiru egunez izan dira ikusgai. Sarituak izan diren lanak hauek izan dira:

1. saria: Xabier Azkue eta Naxari Altunaren “Amalurrari eskutik helduta” lana.
2. saria: Iker Corralen “Tailandia” lana.
3. saria: Felix Aizpuruaren “Abaguneak” lana.



Igandean, gatzetxoaren txanda izan zen. 17 gazte eta 14 gurasoz osaturiko taldeak eguraldiarekin zorte hobea izan zuen eta ederki asko egin zuten Usurbilen hasi eta Oriola arteko bidea, Kukuarritik barrena.

Gero eta jende gehiago biltzen da Usurbilgo Santo Tomas azokan

Jende asko ibili zen pasa den igandeko Santo Tomas azokan. Talo zein txistorra pintxoak jan eta bertako ekoizleek egindako sagardoa dastatzeko aukera izan zen. Herri kirol saio ederrarekin amaitu zen azken urteotako azokarik jendetsuenetakoa.

Babarrun ekoizleek lehiaketara aurkeztutakoa ikusi eta bertako sagardogileen sagardoa dastatzeko aukera urtean behin bakarrik izaten da, Santo Tomaseko azokan. Aurten, sagardogileen lehiaketan, 20 izan dira aurkeztu direnak. Lehiaketan izena eman zuten babarrun ekoizleak, ordea, 34.

Babarrun ale onena aukeratzeko, Tolosako Babarruna elkarteko kide bat izan zen epaimahaian. Aurten, Juan Karlos Balerdiren babarruna izan da lehen saria eman duena. 150 euro eta txapela eraman zituen. Irudian duzue Balerdi, seme-alabekin, saria hartzeko unean. Bigarren Jose Ramon Ibarguren izan zen. Txokoaldeko Irundegi baserrikoak 80 euro eskuratu zituen. Hirugarren saria Manuel Aizpuruak jaso zuen. Aginagako Ibai Ertz etxekoarentzat izan zen 50 euroko saria.



NOAUA!K ANTOLATZEN DU URTERO SANTO TOMAS EGUNEKO AZOKA.

Sagardo lehiaketan, Anburu baserrikoa izan zen nagusi (150 euro eta txapela). Bigarren, Zubietako Etxeberri baserriko sagardoa (80 euroko saria) eta hirugarren Olanoenea baserrikoa (50 euroko saria).

Taloa, txistorra, gaztainak...

DBH4ko ikasleak txistorra pintxoak saltzen aritu ziren. Ikasturte amaierako

bidaia ordaintzeko kamisetak ere jarri zituzten salgai.

Bilgunekoek, ohi bezala, lan handia izan zuten taloa egin eta saltzen. Gaztainak ere banatu ziren. Horretaz aparte, Egunkariaren aldeko postua jarri zuten Dema-plazan eta Erraustegiaren Aurkako Plataformak mural lehiaketara aurkeztu diren lanak ikusgai jarri zituen.

Azokan sarituak izan ziren babarrun ekoizle eta sagardogileak

BABARRUN LEHIAKETA

1. **saria:** Juan Karlos Balerdi, Usasku baserrikoa. Kalezar.
2. **saria:** Jose Ramon Ibarguren, Irundegi baserrikoa. Txokoalde.
3. **saria:** Manuel Aizpuru, Aginagako Ibai-Ertz etxekoa.

SAGARDO LEHIAKETA

1. **saria:** Jakoba Errekondo. Anburu baserria, Aginaga.
2. **saria:** Ramon Urdanpilleta. Etxeberri baserria, Zubiet.
3. **saria:** Antonio Mari Olano. Olanoenea baserria, Txikiardi.



BABARRUN ZEIN SAGARDO LEHIAKETAKO SARIAK BANATU ETA BEREHALA HASI ZEN HERRI KIROL SAIOA DEMA-PLAZAN. HARRIA JASOTZEN JAGOBA OTEGI ARITU ZEN ETA, AIZKOLARI LANETAN, ETXEBESTE ETA TXAPARTEGI.

Felix Aizpurua Literatura

Lehiaketako sariek badute jaberik

Giro ezin hobia izan zen Felix Aizpurua Literatur Lehiaketako sari banaketan. Sutezin ospatu zen ekitaldian bildu ziren, sarituak eta haien lagun eta senideak. Ekimenean parte hartu duten 8-16 urte arteko gazteek Juan Luis Zabalak, Luis Aranaldek eta Jabier Pikabeak osatutako epaimahaiak hartu duen erabakiaren berri izan zuten. Sarituen izen abizenak jakinarazi ahala, oholtza gainera igo ziren idazle gazteak.

Pikabea bera, Felix Aizpuruaren emazte Mertxe Arzallus, Udarregi ikastolaren izenean Ana Sagardia eta Euskara, Kultura eta Hezkuntza alorreko zinegotzi Nerea Erauntzetamurgil aritu ziren sariak banatzen. Guztiek diploma bana jaso zuten, eta baita dirua ere.

Ezustekoren bat edo beste izan zen tartean. Hala nola, ekitaldiko aurkezleak lan hori utzi eta ondoko mahaira saria jasotzera joan behar izan zuenean. Lan saritu batzuk entzuteko aukera ere



SARI BANAKETA SUTEGIN EGIN ZEN. IRUDIAN, SARIEN IRABAZLEAK.

izan zen eta kalitatezko lanak direla agerian geratu zen. Amaitzeko, parte hartzaileen famili argazkia ateratzeko bildu ziren sarituak.

Iazko lanak, liburu batean

Hamabi prosa lan eta bederatzi olerki biltzen ditu Felix Aizpurua Literatur

Lehiaketako bosgarren edizioko lan irabazleekin kaleratu berri den liburuak. Udalak prestatutako 500 aleak herriko ikastetxeetan banatuko dira. Hortik kanpo, Udaleko Euskara Zerbitzuan ere eskura daiteke.

ARITZ GORRITI

Prosan zein olerkian egindako lan saridunak

PROSA

A taldea

1. saria: Olatz Uli Arruti, "Bi zaldi txiki"
2. saria: Itxasne Telleria Santiago, "Arrautzaren istorioa"
3. saria: Aitor Arzallus Sagardia, "Telebista hau magikoa da!"

B taldea

1. saria: Arrate Imaz Eizagirre, "Euri tanta bat"
2. saria: Haira Rivero Arrieta, "Mattinen desioak"
3. saria: Julen Iraola Jauregiberr, "Dendagutxi herria"

C taldea

1. saria: Jon Etxabe Telleria, "Nire aitag"
2. saria: Ander Izeta Goenaga, "Jack L'Mort-ren heriotza"
3. saria: Ane Aburruza Ucar, "Miren eta Leireren abenturak"

D taldea

1. saria: Olatz Larrañaga Pesquera, "Emozioz beteriko gaua"

OLERKIA

A taldea

1. saria: Julen Lertxundi Olazabal, "Sagarra"
2. saria: Ander Etxeburua Ugartemendia, "Ikastolara noa"
3. saria: Maider Zubelzu Irazusta, "Natura"

B taldea

1. saria: Haira Rivero Arrieta, "Hotsen ahotsa"
2. saria: Miren Izeta Goenaga, "Ostadarra"
3. saria: Ione Iruretagoiena Ezeiza, "Kilkerra etxeko belardian"

C taldea

1. saria: Jon Etxabe Telleria, "Eguzki izpiak"
2. saria: Axier Dominguez Prieto, "Amodioa"
3. saria: Aitor Agirre Zapirain, "Esperantza"

D taldea

1. saria: Nerea Arroniz Torres, "Bihotz domaezina"
1. saria: Ugaitz Agirre Zapirain, "Arimen hiltzaileak"
2. saria: Aintzane Iribar Aguiar, "Maitasuna"

Aipamen berezia: Luken Arkarazo Silva, "Maitasun berri baten etorkizuna"

18/98 sumarioko atxiloketak salatzeko bi mozio onartu ziren plenoan

1 8/98 sumarioan auzipetutako-
ek prestatutako mozioa EAE-
ANVk bere egin eta abendua-
ren 12an plenora eraman zuen. Baina
Aralarrek aurkeztutakoa izan zen
onartu zena. Handik bi egunera, gai
berarekin beste udalbatza pleno bate-
rako deia egin zuen EAE-ANV.
Bigarren honetan onartu zen EAE-
ANVk proposatutakoa. Estrainekoz,
gai beraren inguruko bi mozio onar-
tu ziren.

Abenduaren 12ko plenoan, bozketa
unean gertatu zen nahasmena.
Lehenbizi, Aralarren mozioa bozketa-
ra eraman zuten. EAE-ANVk aurkez-
tu zuenarekiko ñabardurak azaltzen
zituen. Atxiloketak, epaiketa prozesu
zentsugabea eta ideien kriminalizazioa
salatu zuten. Onartezintzat jo zituzten
askatasunen une oroko urraketak, eta
gatazkaren konponbiderako oztipoa
dela gogorarazi. Desadostasuna ager-
tzen zuten orde, besteak beste, EAE-
ANVren testuan EAJ-PNVren jarrera-
ri buruz adierazten zenarekin.

Gaizkiuertua

Aralarren proposamenak EA eta
EAJ-PNVren babesa jaso zuen eta
EAE-ANVk abstentziora jo zuen.
Emaiza, sei eta sei, berdinketa.
Gerora, idazkariak adierazi zuenez,
araudiaren arabera, baiezkoen eta abs-
tentzioen artean berdinketa dagoene-
an, baiezkoa izan ohi da nagusi.
Mozioa beraz, ontzat eman zen, baina
berriz ere araudiari erreferentzia egi-
nez, behin mozio bat onartuta gainon-
tzeko alderdiek aurkeztutako mozioak
ezin direla bozkatu jakinarazi zuen
idazkariak. Gaizkiuertua eman zen
bere eta hainbat alderdiren artean eta
ondorioz, EAE-ANVk ezin izan zuen
berak aurkeztutako mozioa bozkatu.
Horregatik, ezohiko beste pleno bate-
rako deia egin zen.

Abenduaren 14ko plenoan, EAE-



18/98 SUMARIOA, EPAIKETA, EPAIA ETA GATAZKARI BEGIRA DAKARTZAN
ONDORIOAK SALATU ZIREN AURKEZTUTAKO MOZIOETAN.

ANVk plenoan aurkeztu zuen mozio-
ak, 18/98 auziari lotutako azken atxi-
loketak independentzia mugimendua-
ren aurkako jazarpenean kokatzen
ditu. Aipatu testuan, auzia, epaiketa
eta epaia salatzearekin batera, konpon-
bidearen aldeko aukerak kriminaliza-
tzen direla adierazten da. PSOEn
estrategia salatzen dute eta EAJ-
PNVren laguntzaz gatazkaren kon-
ponbideari ateak ixten dizkiotela
gogorarazten dute. Konponbide
demokratiko baten beharra ikusten
da, erabakitze eskubidea bermatua
egon dadin.

OLATZ ALTUNARI ELKARTASUNA

“Guztiak, eta modu
berezian, Olatz Altuna
berekala aske uztea
eskatu zuten”

Bestalde, guztiak eta modu berezian
Olatz Altuna herritarra berehala aske
uztea eskatu eta bere lagun eta senide-
ei elkartasuna adierazten diete. Bide
batez, iragarritako mobilizazioekin bat
egin eta herritarrei aipatu ekitaldietan

parte hartzera deitzen da. Eta erasoen
aurrean, lanean jarraitzeko deia zabal-
du nahi dute.

Testua, onartua

Gehiengoz onartu zen pasa den
abenduren 14an EAE-ANVk aurkez-
tu zuen mozioa. Aipatu ordezkarien
aldeko sei bozka jaso zituen testuak.
PSE-EEk aurka bozkatu zuen. Amaia
Goyaranek erabaki judizialak inoiz ez
dituela eztabaidatzen adierazi zuen.
Lotsagarritzat jo zuen alderdi politikoe-
tako ordezkariak elkarrekin eseri eta
hitz egiteko gaitasunik ez izatea.
Udaleko hamahiru ordezkari ados jar-
tzerik ez badute, gatazka nola konpon-
du ote daitekeen galdetzen zuen. Bere
agerraldian, ETaren Capbretongo
atentatua gaitzetsi zuen.

Bozka emateko garaian, gainerako
alderdietako ordezkariak ez ziren pleno
aretoan. Bi egun lehenago, abenduaren
12an gai berari buruzko beste ezohiko
plenoan hartu zuten parte. Orduko
hartan, EAE-ANVrenarekin batera,
gainerako alderdiek aurkeztutako
mozioak ezagutarazi ziren.

Elkarte arteko mus txapelketako finalean, Yoko Garbikoak nagusi

Peña Pagolakoak nagusitu ziren iaz. Aurten, ordea, zubietarrak nagusitu dira elkarte arteko X. Mus Txapelketan. Pasa den abenduaren 15ean jokatu zen finala Andatzpen.

Bertan ziren edizio honetan musean trebeen aritu diren bederatzi elkartee-tako bikoteak: Aginaga, Andatzpe, Mahaspildegi, Eguzki, Yoko Garbi, Aitzaga, Erroizpe, Peña Pagola eta Ibai Ondokoak. Esan bezala, garaileak Ramon eta Angel izan dira, Yoko Garbiko hautagaiak. Bigarren gelditu dira Aginaga Elkarteko kide Joseba Erramun Rezola eta JM Orbegozo. Hirugarren Aitzagakoak, Arkaitz Portularrume eta Xabier Orbegozo. Laugarren postua eskuratu zuten Txokoaldeko Erroizpe elkarteko Mirotz Arrospidek eta Arkaitz



ANDATZPEN JOKATU ZEN ELKARTE ARTEKO MUS TXAPELKETA.

Lizeagak.

Guztiak jaso dituzten sariak ere potoloak dira; txapela eta trofeoekin batera, afariak, ardo kutxak, txuletak,

arkumeak, txanpain botilak, gaztak... Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete txapelketan zehar lagundu duten taberna eta jatetxeei.

Kalitatezko ereduaren bila hasi da Kalezarreko Haur Eskola

Usurbilgo Haur Eskolak liburuxka bat plazaratu berri du. "Kalitatezko Haur Eskola baterantz" izeneko argitalpena herrian banatze-koak dira egunotan. Izan ere, datorren udaberrian Haur Eskolaren etorkizunari buruzko erabakia hartuta egon beharko du.

Liburuxka honetan, Haur Eskolako hezitzaileek profesional ezberdinen iritziak bildu dituzte. Hala nola, bertan seme-alabak dituzten gurasoenak ere.

Udaberrirako, etorkizuna argi

Funtsean, herri honetan eskaintzen den hezkuntza zerbitzuari buruzko ikuspegi orokor bat biltzen da libu-

ruxkan. Baina batez ere, zergatik den hain garrantzitsua Haur Hezkuntzako lehenengo zikloa eta zerk bereizten duen Usurbilgo Haur Eskola ziklo honen barruan.

Hezkuntza Mahaia, irekia

2008ko udaberrian, Haur Eskolaren etorkizuna argituta egon beharko du. Hezitzaileek beraiek onartzen dutenez, "lan handia egin beharko dugu hilabete hauetan. Horrela ba, gonbita luzatu nahi diogu Usurbilgo herriari, laster lanean hasiko den Hezkuntza Mahaian parte hartzera; herriak, beretzako nahi duen hezkuntza-sistema erabakitzeko aukera izan dezan".

Potxoeneko murala larunbatean egingo da

Potxoenea etxearen atzeko paretean mural bat egiteko lehiaketa deialdia egin ondoren, Usurbil Bizirik plataformakoek dagoeneko jasoak dituzte herritarrek utzitako ideiak edo lanak. Hemendik eskerrak eman nahi dizkiete parte hartu eta errauste-planten kontra eta alternatiben alde agertu diren guztiei.

Idea guztiak jaso ondoren, dagoeneko aukeratua dute zein izan den irabazlea, hau da, zein izango den paretean egingo duten murala.

Baina irabazlea nor den jakiteko, abenduaren 22a arte itxaron beharko da. Egun horretan, abenduaren 22an, goizeko 10:00etan pintatuko dute murala Potxoenean. Horretarako nahi duena gertura daiteke eta murala eginen lagundu.

Partehartze handia fruta eta barazkien lehiaketan

Harrera ezin hobea izan du Buruntzaldeko Udalek, fruta eta barazki dendatan euskara bultzatzeko abian jarritako lehiaketak. 976 txartel jaso dira kanpainarekin bat egin duten zortzi saltokietan.

Aliprox, Alkorta Autozerbitzuak, Dia, Coviran, Imanol Txapartegi, Koro Esnaola, Lurdes Frutak edota Otar-Goxon erosketak egitearen truke azken asteetan bezeroek lehiaketa batean parte hartzeko aukera izan dute. Hizki zopa bat osatu, datu pertsonalak idatzi eta saltokietan zeuden kaxetan utzi dituzte orriok. Aipatu bezala, ekimena arrakastatsua izan da; 976 txartel utzi dituzte aipatu zortzi saltokietan.

Pasa den abenduaren 18an egin zen zozketa udalbatza aretoan. Xabier Mikel Errekondo alkateak eta Euskara, Kultura eta Hezkuntza alorreko zinegotzi Nerea Erauntzetamurgilek partehartu zuten.



ASTEARTEAN EGIN ZEN UDALBATZA ARETOAN LEHIAKETAKO ZOZKETA.

Hauek dira sarituak: Txapartegin, Inmaculada Goiburu eta Itziar Bereziartua Zubizarreta. Dian, Marino Prieto Rodriguez eta Maider Zubeltzu Irazusta. Koro Esnaola dendan, Gregori Sarasola eta Kontxi Agirre. Lurdes Frutak dendan, Garazi Izeta eta Jose Luis

Manterola. Otar Goxon, Elene Rekondo eta Aitziber Matxain. Coviranen, Andres Bruño eta Maria Pilar Errasti. Alkorta Autozerbitzuak-en, Ixidora Lizaso eta Pakita Uranga. Eta Aliproxen, Iñaki Agirresarobe eta Oihan Errekondo. Zorionak denei!

Jostailu Azokak harrera ona izan du

Liburuak, panpinak, puzzleak, jostailuak... Denetarik zegoen pasa den abenduaren 15ean Hitz Ahok antolatu zuen lehen jostailu azokan. Eguberrien atarian gaude eta gehiegizko kontsumoa saihestearren, egun batzuk lehenago herritarrek Sutegin utzitako jostailu erabiliak ikusgai jarri zituzten frontoian. Erakusgai eta trukatzeko moduan. Jostailu bat utzi eta bestea hartzea bultzatu nahi baitzen ekimenaren bidez, beti produktu berriak erosten ibili beharrean.



EAE-ANVren zuzenketa

Lerro hauen bitartez EAE-ANVn adierazi nahi du "gure akats baten ondorioz azken NOAUA! aldizkariako kontrazalean kaleratu genuen publizitate orrian agertu behar ez zuten pertsona batzuen izen-abizenak agertu zirela. Beraz, barkamenak eskatu nahi dizkiegu publikoki. Berriz gertatuko ez dela-koan, Usurbilgo EAE-ANV".

J.ORBEGOZO
ITURGINTZA • GASA • BEROKUNTZA
BIZKARRA 1, 1.EBK 943372937 659602789

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE
Obaba kalea 29 • ASTEASU
943 69 68 52 • 620 800 186

Nesken eskubaloit taldeek

Euskal Liga jokatu dute

Usurbil Kirol Elkarteko kadete eta jubenil mailako nesken eskubaloit taldeek elkartearen historian lehen aldiz Euskal Liga jokatzeko txartela lortu dute. Gipuzkoako txapelketa oraindik amaitu ez bada ere, 2. postua ziurtatuta dute biek, eta Euskal Ligan izango dira urtariletik aurrera. Horixe zen bi taldeen hasierako helburua, eta lorpen handi hori gainditzeko ahaleginak egingo dituzte hementik aurrera.

Aurretik helburuak jartzea erraza izaten da, baina horiek betetzeak ematen ditu lanak. Herriko nesken bi eskubaloit taldeetako jokalarit nahiz entrenatzaileek ere hori pentsatuko zuten denboraldi hasieran, baina azken jardunaldietara iristearenkin batera poza izan da nagusi bi taldeen artean. Gipuzkoako txapelketa bikaina egin ondoren 2. postuan amaituko dute biek.

NEREA AGUDO ENTRENATZAILEA

“Gure artean izan dugun giro bikainaren ondorioz, txapelketa polita egiteko moduan izan gara”

Nerea Agudok zuzendutako taldeak bi partida besterik ez ditu galdu Gipuzkoako txapelketan. Partida guztiak irabazi dituen Zarautz talde indartsuaren aurka bata, eta joan den larunbatean Verkol- Aloña Mendi taldearen aurka Oñatin jokaturakoa bestea. Azken neur-



Jubenil mailako taldea: Olatz Arregi, Uxoa Etxarri, Maddalen Cardenas, Maialen Heras, Enara Urdangarin, Aintzane Iribar, Ane Perez, Ane Gurrutxaga, Mari Luz Montero, Eneritz Olasagasti, Irati Holgado eta Garazi Lizaso. Entrenatzaile eta laguntzaileak: Nerea Agudo, Sandra Blanco, Rakel Ullate eta Lana Montes.

keta hau jokatzeko sailkapena lortuta zuten herriko neskek eta galdu egin bazuten ere xanpain eta guzti ospatu zuten Euskal Ligarako txartela lortu izana.

Ilusioz gainezka

Entrenatzailearen esanetan uste baino errazago sartu dira Euskal Ligan. “Hori zen gure helburua, baina gehiago kostako zitzaigula uste nuen. 2. postua eskuratu genuenik ez nuen uste, baina jokalariek lan bikaina egin dute. Jarrera oso ona izan dute, elkarri laguntzeko gai izan dira eta gure artean izan dugun giro bikainaren ondorioz txapelketa polita egiteko gai izan gara”.

Orain Euskal Liga dute begi-bistan. Gipuzkoa eta Bizkaiko taldeak izango dira aurrez aurre eta Usurbil K. E. izango da talde horietako bat. “Lan txukuna egin nahi dugu, maila ona eman. Ilusio handiarekin ekingo diogu txapelketa honi. Hala ere, guk gure lana ondo egin dugu aurretik eta 3. postua lortzea edo Zarautzi irabaztea izugarria izango litzateke. Azken finean, gertatzen dena gertatzen dela ere, orain arteko giroa mantentzea litzateke helburu nagusia”.

OHARRA: Hilaren 23an, Oiardo kiroldegian goizez jokatu diren bi eskubaloit partiden ondoren, bazkideen artean bi otar zozketatuko dira.

JATETXEA - TABERNA
BELARTZA

943 37 60 82

Euskal sukaldaritza tradizionala

Eguneroko menuak eta larunbatetan menu bereziak

- Neurrira eginko menuak
- Plater konbinatuak, otartekoak eta razioak
- Aire egokitua eta sparkalekua
- Atsedeen egunak: larunbata gau eta igandea

Poligono Belartza • Gurutzegi kalea, 15 - A4 Pabilioia • Donostia

CLIMATA-T
klimatizazio orokorra

687 858 390
climata_t@yahoo.es

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

Kadete mailakoak ere, onenen artean

Martin Larrañaga eta Jon Begiristain "Berritza" k zuzendutako taldea ere Euskal Ligan izango da. Azken jardunaldiaren faltan 2. postua ziurtatuta dute norgehiagoka bat galdu, beste bat berdindu eta gainerantzekoak irabazi egin dituzte kadete mailako neskek.

Goiko postuetan sailkatzea posible zela bazekiten eta azkenean lortu dute. "Hasieran pentsatzen genuena egi bihurtu dugu. Lehen bi postuak eskuratzea zen helburua eta azken hau eskuratu dugu".

MARTIN LARRAÑAGA

"Bizkaiko taldeak ez ditugu ezagutzen, baina jokalariek beraiek nahi izanez gero zerbait polita egin dezakegu"

Hala ere, beherakada bat izan zuten joko aldetik azken jardunaldietan. Dena den, "azken 10 minututan 4 eta 6 golez atzetik joan ginen gu baino



Kadete mailako taldea: Aitziber Barreña, Ane Zubeldia, Maider Etxarri, Maialen Ugalde, Izaro Asteasuinzarra, Edurne Sueskun, Eneritz Agirre, Onintze Kamino, Irati Lasarte, Itziar Irazusta, Irati Arruti, Olaia Elizalde, Olatz Arrojeria, Nekane Otaegi eta Aloña Bengoetxea. Entrenatzaile eta delegatua: Martin Larrañaga eta Jon Begiristain "Berritza"

maila apalagoa zuten taldeen aurka, baina azkenean, kostata bada ere bi neurketak aurrera atera genituen".

Euskal Ligan itxura ona ematea izango dute helburu nagusia. "Taldea polita daukagu eta eskubaloian joka-

tzen badakigula erakutsi nahi dugu. Bizkaiko taldeak ez ditugu ezagutzen, baina jokalariek beraiek nahi izanez gero zerbait polita egin dezakegu".

JOSU ARANBERRI

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozategia

LABE-GOXO

639 653 480

GARRAIOAK
Txema Azurmendi
kamioi-garabia

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008


ARRAINDEGIA
PELLO

 Puntapax Kalea, 7
Tlf 36 21 64
USURBIL 

ASKO DUGU ESATEKO

NOAUA! astekaria, tren eta autobusen ordutegia, noaua.com, kultur ekitaldien sustapena, euskararen normalizazioa, urteko egutegia, beka deialdiak, NOAUA! Txiki, Plis, Plas, Txalo eta Jolas, ...

Askto dugu esateko. Baina zure laguntza ere premiazkoa da.

Bazkide egin zaitez!

Noaua!!

36 euro urte osorako

Izena: _____
1.Abizena: _____
2.Abizena: _____
Helbidea: _____
Herria: _____
Telefona: _____
E-posta: _____
Kontu korrontea:

Orrialdea bete eta NOAUA!ra ekarri edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Autobus Orduetgia

Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN

Donostia	Urbil	Usurbil	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Usurbil	Urbil	Donostia
07.40	>>	08.05	08.15	08.25	06.45	06.55	07.05	>>	07.30
08.40	>>	09.05	09.15	09.25	07.15	07.25	07.35	>>	08.00
09.10	09.30	09.35	09.45		07.45	07.55	08.05	>>	08.30
09.40	>>	10.05	10.15	10.25	08.15	08.25	08.35	>>	09.00
10.40	>>	11.05	11.15	11.25	08.45	08.55	09.05	>>	09.30
11.40	>>	12.05	12.15	12.25		09.30	09.40	09.45	10.10
12.40	>>	13.05	13.15	13.25	09.45	09.55	10.05	>>	10.30
13.10	13.30	13.35	13.45			10.30	10.40	10.45	11.10
13.40	>>	14.05	14.15	14.25	10.45	10.55	11.05	>>	11.30
14.10	14.30	14.35	14.45		11.45	11.55	12.05	>>	12.30
14.40	>>	15.05	15.15	15.25	12.45	12.55	13.05	>>	13.30
15.10	15.30	15.35	15.45			13.30	13.40	13.45	14.10
15.40	>>	16.05	16.15	16.25	13.45	13.55	14.05	>>	14.30
16.40	>>	17.05	17.15	17.25		14.30	14.40	14.45	15.10
17.40	>>	18.05	18.15	18.25	14.45	14.55	15.05	>>	15.30
18.10	18.30	18.35	18.45			15.30	15.40	15.45	16.10
18.40	>>	19.05	19.15	19.25	15.45	15.55	16.05	>>	16.30
19.10	19.30	19.35	19.45			16.30	16.40	16.45	17.10
19.40	>>	20.05	20.15	20.25	16.45	16.55	17.05	>>	17.30
20.15	20.35	20.40	20.50	21.00	17.45	17.55	18.05	>>	18.30
21.00	21.20	21.25	21.35	21.45	18.45	18.55	19.05	>>	19.30
22.15	22.35	22.40	22.50	23.05		19.30	19.40	19.45	20.10
					19.45	19.55	20.05	>>	20.30
					20.45	20.55	21.05	21.10	21.30
					21.15	21.25	21.35	21.40	22.00

00.00 Aiora jarraitzen du

00.00 Aiatik dator

Larunbat, igande eta JAIEGUNETAN

Donostia	Urbil	Usurbil	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Usurbil	Urbil	Donostia
08.00	08.20	08.25	08.35	08.45	06.45	06.55	07.05	07.10	07.30
09.00	09.20	09.25	09.35	09.45	07.45	07.55	08.05	08.15	08.40
10.00	10.20	10.25	10.35	10.45	08.45	08.55	09.05	09.15	09.40
11.00	11.20	11.25	11.35	11.45	09.45	09.55	10.05	10.15	10.40
12.00	12.20	12.25	12.35	12.45	10.45	10.55	11.05	11.15	11.40
13.00	13.20	13.25	13.35	13.45	11.45	11.55	12.05	12.15	12.40
14.00	14.20	14.25	14.35	14.45	12.45	12.55	13.05	13.15	13.40
15.00	15.20	15.25	15.35	15.45	13.45	13.55	14.05	14.15	14.40
16.00	16.20	16.25	16.35	16.45	14.45	14.55	15.05	15.15	15.40
17.00	17.20	17.25	17.35	17.45	15.45	15.55	16.05	16.15	16.40
18.00	18.20	18.25	18.35	18.45	16.45	16.55	17.05	17.15	17.40
19.00	19.20	19.25	19.35	19.45	17.45	17.55	18.05	18.15	18.40
20.00	20.20	20.25	20.35	20.45	18.45	18.55	19.05	19.15	19.40
21.00	21.20	21.25	21.35	21.45	19.45	19.55	20.05	20.15	20.40
22.00	22.20	22.25	22.35	22.45	20.45	20.55	21.05	21.15	21.40
22.30	22.50	22.55	23.05	23.15	21.45	21.55	22.05	22.15	22.40

LARUNBAT GAUETAN

00.00	>>	00.25	00.35	00.45
01.00 ^M	>>	01.25 ^M	01.35 ^M	01.45 ^M
02.00	>>	02.25	02.35	02.45
04.00	>>	04.25	04.35	04.45
05.00 ^M	>>	05.25 ^M	05.35 ^M	05.45 ^M
06.00	>>	06.25	06.35	06.45

LARUNBAT GAUETAN

23.15	23.25	23.35	>>	00.00
00.15 ^M	00.25 ^M	00.35 ^M	>>	01.00 ^M
01.15	01.25	01.35	>>	02.00
02.15 ^M	02.25 ^M	02.35 ^M	>>	03.00 ^M
03.15 ^M	03.25 ^M	03.35 ^M	>>	04.00 ^M
04.15 ^M	04.25 ^M	04.35 ^M	>>	05.00 ^M
05.15	05.25	05.35	>>	06.00

00.00 Iurretako Iurretako Iurretako

01.00

Larunbatetik 08/05/23 08/09/07

02.00

Nagazko bazterre

Zarautz	Orio	Usurbil	Donostia
06.08	06.15	06.24	06.39
06.38	06.45	06.54	07.09
07.08	07.15	07.24	07.39
07.38	07.45	07.54	08.09
08.08	08.15	08.24	08.39
08.38	08.45	08.54	09.09
09.08	09.15	09.24	09.39
10.08	10.15	10.24	10.39
11.08	11.15	11.24	11.39
12.08	12.15	12.24	12.39
12.38	12.45	12.54	13.09
13.08	13.15	13.24	13.39
13.38	13.45	13.54	14.09
14.08	14.15	14.24	14.39
14.38	14.45	14.54	15.09
15.08	15.15	15.24	15.39
15.38	15.45	15.54	16.09
16.08	16.15	16.24	16.39
16.38	16.45	16.54	17.09
17.08	17.15	17.24	17.39
17.38	17.45	17.54	18.09
18.08	18.15	18.24	18.39
18.38	18.45	18.54	19.09
19.08	19.15	19.24	19.39
19.38	19.45	19.54	20.09
20.08	20.15	20.24	20.39
21.08	21.15	21.24	21.39
22.08	22.15	22.24	22.39
22.38	22.45	22.54	23.09

Donostia	Usurbil	Orio	Zarautz
05.47	06.03	06.14	06.20
06.17	06.33	06.44	06.50
06.47	07.03	07.14	07.20
07.17	07.33	07.44	07.50
07.47	08.03	08.14	08.20
08.17	08.33	08.44	08.50
08.47	09.03	09.14	09.20
09.47	10.03	10.14	10.20
10.47	11.03	11.14	11.20
11.47	12.03	12.14	12.20
12.17	12.33	12.44	12.50
12.47	13.03	13.14	13.20
13.17	13.33	13.44	13.50
13.47	14.03	14.14	14.20
14.17	14.33	14.44	14.50
14.47	15.03	15.14	15.20
15.17	15.33	15.44	15.50
15.47	16.03	16.14	16.20
16.17	16.33	16.44	16.50
16.47	17.03	17.14	17.20
17.17	17.33	17.44	17.50
17.47	18.03	18.14	18.20
18.17	18.33	18.44	18.50
18.47	19.03	19.14	19.20
19.17	19.33	19.44	19.50
19.47	20.03	20.14	20.20
20.47	21.03	21.14	21.20
21.47	22.03	22.14	22.20

00.00 Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN 00.00 Astelehenetik Igandera eta JAIEGUNETAN

(C) Udan bakarrak 08/05/23 08/09/07

Bezeroen arretarako bulegoa 902 54 32 10 www.euskotren.es i attcliente@euskotren.es

Eguneko goardiako farmaziak

Abenduak 20, osteguna
Gil, Nagusia 24 LasarteAbenduak 21, ostirala
Rodriguez, Nagusia 42 atz LasarteAbenduak 22, larunbata
Gil, Nagusia 24 Lasarte
Oa Kontzeju Zaharra 11 UsurbilAbenduak 23, igandea
Gil, Nagusia 24 LasarteAbenduak 24, astelehena
De Miguel, Nagusia32 Lasarte
Oa Kontzeju Zaharra 11 UsurbilAbenduak 25, asteartea
De Miguel, Nagusia32 LasarteAbenduak 26, asteazkena
Urbistondo, San frantzisko 1, LasarteAbenduak 27, osteguna
Rodriguez, Nagusia 42 atz LasarteAbenduak 28, ostirala
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 LasarteAbenduak 29, larunbata
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte
Iturralde, Bordaberri 1 UsurbilAbenduak 30, igandea
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 LasarteGOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
J. Etxebeeste Farmazia (22:00-09:00)
Elkano 2 kalea, Hernani 943 55 20 87

2007ko egutegia noaua.com webgunean

Zubieta-Donostia
TST autobusak

ASTEGUNETAN

Zubieta-Donostia

7:55* / 9:30(T) / 13:15(T)
14:35*(T) / 19:15(T)

Donostia-Zubieta

(Gipuzkoa plazatik)

7:15* / 9:00 / 12:45(T)
13:45* / 18:45

LARUNBATETAN

Zubieta-Donostia

8:15(T) / 12:45
15:15(T) / 21:35(T)

Donostia-Zubieta

(Gipuzkoa plazatik)

12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN

Zubieta-Donostia

11:25(T) / 13:30(T)
15:30(T) / 21:35 (T)

Donostia-Zubieta

(Gipuzkoa plazatik)

11:00(T) / 13:00(T)
15:00(T) / 21:00 (T)

T: Autobus aldaketa beharrezkoa da

*: Eskola egunetan / Tf. 943 36 17 40

Agenda !

Abenduak 20, osteguna

- Olentzero antzerkia. 18:30ean Santuenea elkartean. Sarrera doan.
- Lehen Jaiotza lehiaketa. Lanak aurkezteko azken eguna, abenduak 20. Santuenea elkartean aurkeztu behar dira lanak. Parte hartzaileak, 13 urte bitartekoak.

Abenduak 21, ostirala

- Haur Hezkuntzako haurrak 11:25ean irtengo dira Agerialdetik Bordatxoko errotondara.
- Lehen Hezkuntza eta DBHko ikasleak 9:30ean irtengo dira Udarregitik eta ibilbide ezberdinak osatuko dituzte.
- Ikatz eta Lore Olentzeroren lagunak. San Tomas egunean, Olentzeroren gutunak jasoko dituzte Dema plazan goizean zehar.
- Gazteentzako I. Prosa eta Olerki Lehiaketa. 14-20 urte bitartekoentzat. Lanak aurkezteko epea: abenduak 21 ostirala. Antolatzailea: Santuenea elkar-
tea.

Abenduak 22, larunbata

- Pirritx eta Porrotx pailazoak. "Eskerrik asko" lan berriaren aurkezpena. Bi saio: 16:00, 18:30. Sarrerak aldeztu aurretik 4,5 euro Mahukan eta Bordatxon. Takilan, 6 euro. Antolatzailea: Argiaren lagunak.

Abenduak 24, astelehena

- Aginagako gabon eskea 9:00etan apaiz ondoko etxetik.
- Kalezarreko Haur Eskolako haurrak Olentzeroren bisita jasoko dute 9:30ean. 10:00etan abestera irtengo dira.
- Zubietako gabon eskea 15:30ean Ameritik abiatuko dira.
- Etixeraten gabon kanta saioa 16:00etan Aitzaga aurretik.
- 17:30ean haur jaiotzaren kalejira Usurbilen. 19:30ean frontoian. Usurbilgo kaleetan. Ziortzak eta parrokiak antolatuta. Santueneatik aterako da Olentzeroren aldeko kalejira 18:00etan.

Abenduak 26, asteazkena

- San Esteban Txiki eguna. Meza eta gero hamaiketako.

Ostegun honetan, Esperientzia Eskola tailerraren aurkezpena

50 urtetik gorako herritarrei zuzenduta dago Esperientzia Eskola izeneko tailerra, urtariletik aurrera Usurbilen martxan jarri nahi dena. Horretarako, 15eko talde bat osatu beharko da. Tailerra urtarilean hasi eta ekainean amaituko litzateke. Eskolak astean behin bakarrik emango lirateke baina eguna eta ordua izena ematen dutenek zehaztuko dute.

Udal Gizarte Zerbitzuek antolatu dute ikastaro hau. Dena den, Mugabe elkartea izango da Esperientzia Eskola tailerra aurrera



OSTEGUN HONETAN, ARRATSALDEKO

18:30EAN HITZALDIA SUTEGIN.

eramango duena.

Tailer hauen inguruko informazio gehiago, abenduaren 20an osteguna, arratsaldeko 18:30ean Sutegin egingo den aurkezpenean.

Ekitaldi ugari Aginagan, Antxomolantxa elkartearen eskutik

Abenduaren 26an asteazkena "Babe txerritxo hirian" pelikula. 17:00etan Aginagako ludotekan. Adin guztientzat.



Abenduaren 27an osteguna "Gure erria ezagutzeko irteera", 15:00etan frontoian.

Abenduaren 28an ostirala Peio Añorga ipuin kontalaria. 17:00etan ludotekan. Adin guztientzat.

Abenduaren 29an larunbata "Asterix eta Kleopatra" pelikula. 17:00etan ludotekan. Adin guztientzat.

Herrian sortuko den triatlói talde berria, laguntza premian

Baxurde Txiki. 2008an zeresana emango duen kirol talde berria dugu. Hamabi pertsonako triatlóilari taldea osatu da herrian eta une honetan, kirol taldea martxan jartzeko azken tramiteak egitea baino ez zaizkie geratzen. Gauzak ondo badoaz, urtarilerako dagoeneko federatuta izango dira. Denboraldia martxoan hasiko dute eta uztailean luzatuko zaizkie jardunaldiak. Ekinean hasteko gogoz dira Baxurde Txikiko kirolariak, baina hainbat gastuei aurre egiteko laguntza beharrean dira. Taldea laguntzeko prest dagoenak deitu dezala honako telefono zenbakira: 661 258 977.



ETXEBIZITZA

- Hiru logelatako etxe baten bila gabiltza Usurbilen. Agentziarik ez. 616064059.
- Etxea salgai Kale Nagusia. 90 m. Igogailua, garajea, trasteroa. Telefonoa: 943 36 13 83.
- Pisu bat salgai. Santuenea auzoan, 16 zenbakia 4. pisua, 33 milioitan (negoziagarria). Interesatuak: 667802888.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Pisu bat edo etxe bat alokatu nahiko nuke. 650082049.
- Hiru logelatako etxe bat salgai, kaxkoan. Igogailua, ganbara eta balkoiduna. 655 72 06 66.
- Pisua alokatuko nuke Usurbilen. Telefono zenbakia: 943 36 02 45 / 661 702 708.
- Salgai. Kaxkoan, 3 logelako etxea trastero-arekin. Garajea aukeran. 685731792
- Bi gela edo gela bateko apartamentu baten bila nabil Usurbilen. 687 650 066 (Maria).

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Wolkswagen California bat daukagu salgai. 92. urtekoa, 2400eko motorra, konpondu berria, berogailuarekin, Toldoa abantze itxiarekin, alboko atean moskitera, bateria bikoitza eta bafle berriak. 650004264 edo 943243379.
- Citroen Picasso Diesel salgai. 4 urte. 617 24 26 60 (Nere).
- Estrenatu gabeko Aprilia Scoter SR 50 motoa saltzen dut. 649 356 081.
- Land Rover 4.6 (lp) todoterrenoa salgai. 8 urte. 455.000 km. Oso ondo zainduta. Extra asko: gps, vdo, telebista eta telefonoa. Ruben. Tfno. 609408401.

LANPOSTUAK

Lan-eskaintzak

- LH edota DBHko ikasleei klase partikularak emateko prest egongo al zinateke?

Udarregi ikastolan, lan hori beteko lukeen pertsonekin zerrenda bat osatzen ari gara. Interesatuak pasa Ikastolako zuzendaritzatik.

- Ingelera emango duen irakasle bat behar da Zubietan, astean behin edo bitan klaseak emateko. 943 36 07 59 (Pello).
- Astean bi egunetan etxeko lanak egin eta tarteka umea zaintzeko pertsona baten bila nabil. Irailetik aurrera hasteko. 627278907.
- Urte osoz, astebukaeratan lan egiteko zerbizari baten bila gabiltza. 943366710.

Lan-eskaerak

- Etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 636934237.
- Etxeko lanak egiteko emakumea eskaintzen da. Goizez edo arratsaldean lan egiteko prest. Deitu: 679 79 61 01.
- Emakume euskaldun bat eskaintzen da, egunero lau-pabost ordu lan egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 687348223.
- Pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 677343326
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko. 630274906
- Emakume bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaintzeko. Telefono zenbakia: 676221378.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 679742413.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporrak, ospakizunak, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. Telefono zenbakia: 943555835/ 617 242 660.
- Etxeko lanak egin, pertsona helduak zaindu edo jatetxe batean lan egiteko prest nago. 610 669 335.

- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zein pertsona helduak zaintzeko. 618434990.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 620 646 769.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Zamarra mahukarik gabea aurkitu dugu. Alazne Arrutiren izena du. Zurea bada, deitu honako telefono zenbakira: 692 837 951.
- Abenduaren 4an giltzak galdu nituen giltzako beltz batekin. Aurkitu badituzu eskertuko dugu deitza: 685 72 56 81.
- Usurbilgo gazte kuadrila bat gara eta lokal bat alokatu nahi genuke herrian. 943360744.
- Euskotreneko autobusetan pensionisten txartela galdu dut. Txartelean nire izena agertzen da Jose Luis San Sebastian. Aurkitu baduzu eskertuko nizuke 943371471 telefonora deitza.
- Kotxeko aulkitxo salgai. Maxi Cosi Priori XP. 110 euro, erdi prezioan. 652 764 620.
- Egurrezko aulkiak salgai. Aritz egurrez eginikoak. 943 36 20 49.
- Lur zatitxo bat hartuko nuke, baratz txiki bat osatzeko. 615744076.
- Bigarren eskuko trikitixa bat erosiko nuke. 656 76 52 13.
- Benelli repertidora salgai 600 euro. 645 735750.
- Mercedes Vito Mixta 112 CDI bat saltzen dut. Aire egokitua, kristal tintatuak, bigarren bateria, berogailu autonomoa... Dena hornitua, 610 431 999.
- 5 urte dituen Renault Megane Coupe bat daukat salgai. 637 760 852.
- Snow egiteko tabla bat fizioekin salgai. Tf: 679 185 102.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net



Zorionak Maddi!
Zenbat egun falta dira zure urtebetetze-rako? Oso

gutxi, ezta? Abenduaren 24ean 7 urte beteko dituzu. Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partetik.



Zorionak Arrate eta Tomas!
Zenbat urte bete dituzue? Arratek 11baina Tomasek... Zorionak bioi ta muxu handi bat familiaren partetik

JAIOTZAK

- Aner Matxain De la Cruz, abenduaren 5ean.
- Asier Elvira Lopez, abenduaren 4an.
- Maddi eta Irati Aranguren Carbayeda, abenduaren 8an.
- Pello Lizaso Goenaga, abenduaren 8an.

Oharra: *Jaiotzak*, Usurbilgo Bake Epaitegitik jasotako datuak. Merkatu Txikirako mezuak, zorion agurrak, hildakoen edota jaioberrien aipamenak orri honetan ikusi nahi badituzu, honako telefono zenbakira deitu bulego orduetan: 943 360 321.
E-postaz igorri bestela: erredakzioa@noaua.com

ALIPROX

Kale Nagusia 10
☎ 943 361 182
USURBIL

JOSUE
ARANZAZISTROKI
**IGELTSEKITZA
eta
PINTURA**

Juan Jose enea, 6 Kalezar
Telf: 606 37 21 05



Otar-Goxo
Elizagaitzak

Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

Ni Gipuzkoa naiz.

Guztiok gara Gipuzkoa.

Zurekin egingo dugu Gipuzkoa. Eta Gipuzkoa hobea lortzeko pausoak emango ditugu guztion artean. Plana aurrera egitea da.

2007/2011 Kudeaketa Plana



GIPUZKOA

zurekin, aurrera >>



Zorionak
eta Urte berri on!

mahuka
arropa denda